

4º
CONCURSO

PROGRAMA DE SENSIBILIZACIÓN EDUCATIVA

HAZLO VERDE

MISIÓN SOMOSLARAÍZ

#PLASTICFREE



UNITATE 1

ESPARRU PEDAGOGIKOA ETA
#PLASTICFREE MISIOAREN AURKEZPENA

LEROYMERLIN
Da vida a tus ideas

DEMOS VIDA A UN
HÁBITAT MEJOR

AURKIBIDEA

1. ODS-GJH-EN TESTUINGURUA

2. #PLASTICFREE MISIOA ETA IKASLERIAREN AHALDUNTZEA

3. LOTURA KURRIKULARRA

4. ZEIN DA GURE MISIOA? ZER AURKEZTEN DUGU?

5. AURRETIAZKO GOGOETA DINAMIKAK



1. ODS-GJH-EN TESTUINGURUA.

2000. urtean, orduko ONU-ko 189 Estatu Kideetako Ordezkariek bildu egin ziren mende aldaketa horretan iraunkorrak ziren arazo ezberdinak konpontzeko mundu mailako aliantza bat eginez. Bilera honek **Milurteko Aldarrikapena** atera zen, **Garapen Jasangarriaren Helburuen** aurrekoa, zeinetan harpidetutako herrialdeak, besteak beste, gosea eta pobrezia gainditzeko, ikaskuntzaren unibertsaltasuna lortzeko, berdintasuna sustatzeko eta ingurumenaren jasangarritasuna bermatzeko jarduerak garatzera konprometituko ziren. Guztira 8 helburu izan ziren eta **Milurteko Helburuak** izendatu ziren.

2015eko uztailean, ONU-ko Herrialde Kideek Munduko Helburu hauen inguruko hitzarmen berri bat adostu zuten, lortu beharreko Helburuak 17ra hedatuz. **Garapen Jasangarriko Munduko Helburuak** bezala izendatu ziren, ohiko bere izendapena **ODS-GJH** izanik.

Hitzarmen horren helburua esfortzuak konprometitzea zen, mundu osoko pertsonak, betiere planeta kaltetu gabe, hobeto bizitzea bermatzeko. Estatuak hurrengo 15 urtetan, 2016tik 2030 arte, helburu horiek lortzeko lanean jardungo ziren.

ODS-GJH izendatuak, egungo eta etorkizuneko munduan gainditu behar diren erronka nagusietarako konponbide zehatzak ekartzeko asmoa dute, planetaren baliabideak iraunarazi eta planetan bizi garen guztion bizi-kalitatea hobetuko duten gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan egonkortasuna bermatzeko helburuarekin. Orainaldia eta etorkizuna, egungo eta etorkizuneko belaunaldiak helburu komun baten izenean bateratuak.

Markatutako 17 helburuetatik, erdia baino gehiago jasangarritasuna eta ingurumena arloetan daude: ura, energia, bizigarritasuna, ekoizpena eta kontsumoa, itsasoko bizitza eta lurreko ekosistemak, klima aldaketa



Gogoratu eskuragarri dituzuela, **7 talde dinamika** gogoetara eta ekintzara eramaten gaituztenak, ingurumen ODS-GJH bakoitzeko dinamika bat.

2. #PLASTICFREE MISIOA ETA IKASLERIAREN AHALDUNTZEA

Ingurumen jarduerak ikasgeletan garatzeak haurrak horietatik kanpo ahaldunduz ditu.

Aldaketa klimatikoaren inguruko Nazio Batuen Esparruko Hitzarmenaren 6. artikuluan adierazten da “Hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa” bere txostenean derrigorrezkoa dela klima aldaketa eta bere eraginen inguruko prestakuntza eta sentsibilizazio programak elaboratzea eta aplikatzea. Eskola programa eta jarduera horiek erronka haue-
tarako erantzunak ematea, **gizarte osoaren aldaketa eta kontzientziazioa bermatzeko** abiapuntua esparru lokala izanik.



Ahaldundu. Bere esanahiari erreparatzen badiogu, honen bidez pertsona batek beregan konfiantza eta segurtasuna garatzea bilatzen da, bere auto-estimua, bere indarra hedatzeko, bere gaitasunak hobetzeko eta bere potentziala bultzatzeko baliabideak direla medio eta hori guztia bere egoera edota bere ingurunearen egoera hobetu ahal izateko helburuarekin.

Helburu nagusia hurrei konpetentziak ematea da, euren etorkizun hurbilean bere ekintzen eta erabakien garrantzia baloratu dezaten, hiritar arduratsuen modura moldatu ahal izan daitezen, izan ere, egungo ikasleak biharko hiritarrak dira.



3. LOTURA KURRIKULARRA

IRAKASGAIAK	EDUKI BLOKEAK	DESKRIBAPENA
NATUR ZIENTZIAK	4. BLOKEA MATERIA ETA ENERGĪA.	Material batzuen azterketa eta sailkapena. Aurrerapen, produktu eta material ezberdinen erabilgarritasuna gizartearen aurrerapenerako. Garapen energetiko, jasangarri eta bidezkoa.
	5. BLOKEA. TEKNOLOGIA, OBJEKTUAK ETA MAKINAK	Teknologien eta produktuen onurak eta arriskuak.
GIZARTE ZIENTZIAK	1. BLOKEA EDUKI KOMUNAK	Proiektuen planifikazioa helburuak lortzeko asmoarekin. Ekimen ekintzailea.
	2. BLOKEA EZAGUTZEN DUGUN MUNDUA	Baliabide naturalak, lehengaiak. Ekoizpen sektoreak. Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena. Kontsumoa.
	3. BLOKEA GIZARTEAN BIZITZEA	Garapen jasangarria. Kutsadura arazoak. Kontsumo arduratsua.
HEZIKETA Ç ARTISTIKOA	2. BLOKEA ADIERAZPEN ARTISTIKOA	Irudikatu modu pertsonalean, ideiak, ekintzak, ikusmen hizkuntza konfiguratzeko duten elementuen erabilera eginez. Ekoizpen plastikoak egin prozesu sortzailearen oinarritzko jarraibideak kontuan hartuta. Irudikatu, marraztu eta elaboratu obra tridimentsionalak material ezberdinekin.
GIZARTE ETA GIZALEGEZKO BALIOAK	3. BLOKEA ELKARBIZITZA ETA GIZARTE BALIOAK	Naturaren ondasunen erabilera arduratsua egitea, gertakariak ulertuz eta interpretatuz, arrazoiak aztertuz eta ondorioak aurreikustea bultzatuz. Ingurumenaren kontserbazioa bultzatu, jarrera kritiko bat mantenduz. Planetako energia iturrien erabilera arduratsua baloratzea, inguruneari dagokionez kontzientziazatuz eta gaitasun kritikoa garatuz.



4. ZEIN DA GURE MISIOA? ZER AURKEZTEN DUGU?



Diseinu grafiko bat, **lema inspiratzaile** bat dakarren diseinu grafiko bat, lagungarria hone-
tarako:

- Plastikoen erabilerari buruz hausnartzeko.
- Bere inpaktuaz eta ingurumen aztarnaz kontzienteak izateko.
- Bere eguneroko kontsumoa minimizatzeko.
- Beste aukera batzuk bilatzeko.

Diseinu hau poltsa jasagarrietan inprimatuko da, eta horiek Leroy Merlin dendetan bana-
tuko dira.

2. Unitate Didaktikoan, “Diseinuari aplikatutako prozesu sortzailea”, transmititu nahi
duzuen mezuaren gogoetan **kontuan hartu beharreko jarraibideak** hala nola diseinu grafiko
batean aplikatzen diren proiektu metodologiaren urratsak aurkituko dituzue.

Zuen partaidetza lana bideratzeko, bi lan metodologia eskaintzen dizkizuegu, **Adimen Anit-
zetan** eta **Ikaskuntza Kolaboratzailean** oinarritzen direnak.



A Metodologia:

Kontzeptuak barneratu ondoren, zure ikasleak lan-taldeen arabera antolatu,
diseinu grafiko bat osatzen duten atalak kontuan hartuta:

- Slogan edo lema inspiratzailea.
- Diseinua: irudiak, baliabide grafikoak.
- Irakurketarekin hobekien egokitzen den tipografia.
- Koloreak eta gama kromatikoa.

Talde bakoitzak bere planteamenduak eta zirriborroak bildu dituenean, baterat-
ze-lana egin dezakezue hautatutako diseinu grafikoa lan-talde bakoitzaren ekar-
pen onenen arteko emaitza izan dadin.

B Metodologia:

Zure ikasleak diseinu arloko taldeen arabera antola itzazu. Diseinu grafiko
batean barne hartzen diren faktore guztiak kontuan hartu beharko dituzte:

- Slogan edo lema inspiratzailea.
- Diseinua: irudiak, baliabide grafikoak.
- Irakurketarekin hobekien egokitzen den tipografia.
- Koloreak eta gama kromatikoa.

Talde bakoitzak bere diseinu grafikoa aurkeztu beharko du, klasearen gainerako
kideei euren proposamena aurkeztuz. Bateratze-lan honen ondoren, bozkatu
eta lehiaketara aurkezteko diseinu bat hautatu ahal izango duzue edo bestela
diseinu berri bat sortu, proposamen onenetatik nahasitako elementuekin.



5. AURRETIAZKO GOGOETA DINAMIKAK

4. Edizio honetako misioan parte hartu dezazuen modu egoki bat plastikoei gure egunerokotasunean eragiten duten inpaktuaz jabetzeaz datza, zuen kideei eta inguruneari jarrera aldatzeko beharra bistaratzeaz, ingurumena kontserbatzeko ekarpena eginez, zeuen burua aldaketa agente bihurtuz.

Inspirazio modura baliagarriak gertatu ahal zaizkizuen dinamika ezberdinak uzten dizkizuegu,

Baina ziur gaude zuen ikasleek euren ideia propioak asmatuz aurea hartuko dutela!

No olvidéis subir vuestras fotos, retos y logros en vuestras RRSS con el hashtag #PlasticFree y #HazloVerde

O al correo info@hazloverde.es para que las compartamos en el **Blog del concurso**



CHALLENGE #PLASTICFREE

GU INFORMATU ONDOREN
GAINERAKOAK INFORMATZEN
DITUGU

JARRERA ALDAKETA BULTZAZEN
DUEN EKINTZA BAT EGTEEN DUGU

Itsasoko plastikoen presentziarekin lotutako berriak bilatu, inpaktu handieneko irudiak hautatu eta ikastetxeko pasilloan edo sarreran azalpen panel bat munta ezazue.

Atsedenaldira baztertzeko diren plastiko guztiak bildu itzazue. Ondorengo datuak bildu: plastiko mota, bakoitzaren funtzioa, hondakinen bolumena. Gainerako ikasleak bere erabilera murrizteko beharraz informatzeko astean behingo taldeak osatu, aukerak bilatuz eta jarraian emaitzak taula batean idatzi. Amaitzean, ikusiko duzue bere kontsumoa murriztea nola lortzen duzuen!

Planteatu, talde-ikasgela modura, plastikoen kontsumoarekiko zein aukera dauden, adibidez, merienda bildu eta gordetzeko unean, dendetako poltsa kontsumoaren murrizketa, edota horiek material jasagarriago berritzaileengatik ordeztzea.

SORTU EZAZUE ZEUEK CHALLENGE PLASTICFREE PROPIOA!

Gogoratu eskuragarri dituzuela, ODS-GJH-ak
lantzeko talde dinamika pila bat
Ez ahaztu aurreko ediziotako material didaktikoa kontsultatzea!

